



UDALBILTZA

2021eko otsailaren 5ean

UDALBILTZA PARTZUERGOAREN ETA BERGARA, ANTZUOLA ETA ELGETAKO UDALEN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA:

BILDURIK

Alde batetik JABI ASURMENDI SAENZ jauna, udalaren zuzendaria, UDALBILTZA Partzuergoaren izenean, hala baitagokio lehendakaria den heinean eta kontutan hartuta Partzuergoaren Estatutuen 30 eta 31 artikuluetan xedatutakoa.

Bestetik:

Gorka Artola Alberdi jauna, BERGARAKO Udaleko alkatea, udalaren zuzendaria, udal horren ordezkaria eta izenean.

Beñardo Kortabarria Olabarria jauna, ANTZUOLAKO Udaleko alkatea, udalaren zuzendaria, udal horren ordezkaria eta izenean.

Iraitz Lazkano Gartiaonandia jauna, ELGETAKO Udaleko alkatea, udalaren zuzendaria, udal horren ordezkaria eta izenean.

Aldeak beren karguei dagozkien eskumenak direla medio agertu dira, eta hitzarmen hau izenpetzeko ahalmena aitortzen diote elkarri, eta horren ondorioz

ADIERAZTEN DUTE

-I-

Udalbiltza Partzuergoa 2001. urtean sortu zen erakunde publikoa da. Nortasun juridiko propioa eta erabateko ahalmena du bere helburuak lortzeko. Helburu horien artean, Partzuergoak, *Geuretik Sortuak* proiektua abiatuko du 2021. urtean, Euskal Herriko 22-25



UDALBILTZA

herrian.

Euskal Herrian arazo nazionala dago euskal kultura eta arteari dagokionez. Arazo horri herri bezala aurre egiteko Udalbiltza bezalako egitura nazional bat ezinbestekoa da. Gainera, zeregin horri tokian tokikotasunetik ekin behar zaio ezinbestean, eta horrela jasotzen da proiektuaren definizioan. Izan ere, Euskal Herri osoko hautetsiak eta udalak saretzen dituen proiektua da *Geuretik Sortuak*.

Euskal kulturgintzaren arazo orokor honetaz gainera, aurreikus daiteke honezkero kaltetuta dagoen kolektibo honek kalte handiak pairatuko dituela hemendik aurrera osasun krisialdia dela eta.

-II-

Proposamen berritzaile horrekin, euskara eta kontakizuna ardatz hartuta, partzuergoak eta udalek euskal herriak kulturalki saretuko dituzte. Horretarako, hiru arte diziplinatan oinarrituko da proiektua: literatura, antzerkia eta zinemagintza.

Jada, sormen lanak garatzeko beharrezkoak diren diru-laguntzak emateko deialdia atera du Partzuergoak, 2021eko urtarrilaren 19ko datarekin. Beka deialdi horrek, proiektuak eskatzen duen kalitate eta moldagarritasuna bermatzen ditu. Halaber, 23-28 sortzaile eta kulturgile hautatuko dira parekidetasuna eta arlo aniztasuna kontuan hartuta. Behin eskaerak jaso eta herriekin alderatu ondoren, esleipen prozesuari ekingo zaio.

Euskaraz izango diren artelanak herri bakoitzaren idiosinkrasiari lotuta egongo dira. Hori bermatu ahal izateko, kulturgileek berea ez den herrian hiru asteko egonaldiak egingo dituzte, hura ezagutu eta hasierako proposamena esleitutako tokira egokitzeke.

2021eko azken hiruhilekoan eta 2022ko lehen hiruhilekoan artelanen argitalpena, hedapena eta komertzializazioa egingo da. Horretarako, ekoizle eta argitaletxeentzako beste beka deialdi bat egingo da, izan ere, proiektu honen helburu nagusietako bat artelana erabili, landu edo erakutsi ahal izatea da; azken finean, artearen bitartez euskal kultura transmititu eta sustatzea.



UDALBILTZA

-III-

BERGARA, ANTZUOLA eta ELGETAko UDALAK, beraien eskumenak betez, hainbat sustapen politika ari dira lantzen kultura eta euskararen inguruan. Testuinguru horretan, bakoitzak, aurrekontuetan "Udalbiltza Geuretik Sortuak", "Kultur jarduerak" eta "kultura batzordea" izeneko aurrekontu partidak aurreikusi dituzte, hurrenez hurren.

-IV-

Toki-erakundeek beren artean koordinatu behar dituzte beren eskumenak, eta bereziki herri-administrazioekin, bai tokiko jarduerak nahiz zerbitzuak toki erakunde bakoitzaren interesen gainetikoak direnean, bai herri-administrazioen interesak nabarmen ukitu edo baldintzatzen dituztenean, zein herri administrazio horien interesekin bat datozenean edo osagarriak direnean.

ERABAKI DUTE

Honako Lankidetza Hitzarmena izenpetzea, aurrez ezarritako esparruaren barruan konpromiso hauek betetzeko, ondorengo klausuletan oinarrituta:

KLAUSULAK

LEHENA.- XEDEA

Hitzarmen honen xedea da lankidetza esparru bat ezartzea Udalbiltza Partzuergoaren eta Bergara, Antzuola eta Elgetako Udalen artean *Geuretik Sortuak* kultura proiektua garatzeko.

BIGARRENA.- HITZARMENAREN IZAERA



UDALBILTZA

Lankidetzta hitzarmen hau Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 legearen 47. artikulutik aurrerakoetan arautzen denaren arabera da.

Hitzarmen hau sinatzen duten lau entitate publikoek haien arteko harremanetan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 legearen 55. artikuluan xedatutakoa beteko dute.

HIRUGARRENA.- UDALAREN BETEBEHARRAK:

Proiektua finantzatzeko Udalek 53.398,52 euroko ekarpena konprometituko dute guztira. Zenbateko hori, bi urtetan ordainduko da: 2021 urteari dagokion zatia, 24.194,13 euro, hitzarmena sinatzerakoan eta, gainontzekoa, 29.204,39 euro, 2022 urtean, maiatza baino lehenago.

Ekarpenaren lehenengo zatiari dagokiona horrela izanda:

2021eko aurrekontuan agertzen den 3.104813341301 kontu sailaren kargura egingo du Bergarako Udalak, 16.353,71 euro.

Antzuolako Udalaren kasuan, 2021eko aurrekontuan agertzen den 1.0600.481.99.912.00.2021 kontu sailaren kargura egingo du, 4.214,70 euro.

Elgetako Udalak, aldiz, 2021eko aurrekontuan agertzen den 1.9000.226.99.330.00.2021 kontu sailaren kargura egingo du, 3.625,72 euro.

2022ko maiatza baino lehenago egin beharko dute udal hauek bigarren zatiari dagokion ekarpena, horrela izanda:

2022ko aurrekontuan sortuko den kontu sailaren kargura egingo du Bergarako Udalak, 19.933,53 euro.



UDALBILTZA

Antzuolako Udalaren kasuan, 2022ko aurrekontuan sortuko den kontu sailaren kargura egingo du, 4.851,46 euro.

Elgetako Udalak, aldiz, 2022ko aurrekontuan sortuko den kontu sailaren kargura egingo du, 4.419,39 euro.

Ekarpen honen bitartez Udalbiltza Partzuergoak aurrera eramango duen *Geuretik Sortuak* kultura proiektua finantzatuko da, betiere, estatutuetan zehaztutako helburuen baitan. Beraz, ekarpen honek izaera finalista izango du.

Horrez gain, aurrez aipatu diren sormen egonaldietan, Udalek dituzten gaitasunen arabera eta beraien esku dagoen heinean, kulturegileei ostaturia (soilik lo lekua) eta lan egiteko lekua bermatuko dizkie. Horrekin batera, udalak egonaldietan beka onuradunei harrera eta harremanetarako arduradun bat egon dadin bermatuko du, kultura proiektu honetako udaleko ordezkaria izango dena eta eguneroko edozein arazo edota beharretarako eskuragarri egon daitekeena.

Ekarpen hau, abenduaren 17ko diru-laguntzei buruzko 38/2003 lege orokorraren 2.2 artikuluan arautzen denetakoa da eta hortaz, lege horren aplikaziotik at dago.

LAUGARRENA.- PARTZUERGOAREN BETEBEHARRAK:

Hitzarmena sinatu baino lehen, Udalbiltza Partzuergoak 2021. urtean proiektuarekiko aurrera eramango dituen programa eta jardura ezberdinak jasotzen dituen txosten bat jarriko du Udalen esku.

Bestalde, Partzuergoak sormen, ekoizpen eta hedapen diru-laguntzen deialdiak eta kudeaketa bere gain hartuko du. Ildo horri jarraiki, Udalei proiektuaren nondik norakoen gainean jakinaraziko zaie, Udalbiltzako kultura eta komunikazio arduradunaren eta udaletako ordezkarien harreman zuzenaren bitartez, bereziki esleipen faserako beharrezkoa izango den udalerrien kultura baliabideen azterketa eta diagnostiko bat egin ahal izateko.



UDALBILTZA

Sormen fase horretan, Bergara, Antzuola eta Elgetan antzezlan bat garatuko da.

Udalerri ezberdinetan kulturgileek sortutako artelanen argitalpena, hedapena eta komertzializazioa egingo du Udalbiltzak. Gainera, 2021eko amaieran eta 2022ko lehen erdian *Geuretik Sortuak* ekimenaren oinarri den aurkezpenen zirkuitua bermatuko du Udalbiltza partzuergoak Bergara, Antzuola eta Elgetako udalerrietan eta proiektuan parte hartzen duten beste udalerrietan, horretarako beharrezkoak izango diren garraio eta aurkezpen gastuak finantzatuz.

Gauzak horrela, Bergaran 5 antzerki emanaldien, eleberri laburrez osatutako liburu osoaren eta film laburrez osatutako film osoaren aurkezpen publikoa egingo da, azken bi hauetan artelan bakoitzean lan egindako kulturgileren batek parte hartuko du.

Antzuolan, 3 antzerki emanaldi egingo dira, haietariko bat herri hauetan ekoiztutakoa izanda. Gainera, film laburrez osatutako film osoaren aurkezpen publikoa ere egingo da kulturgileren baten parte hartzearekin.

Elgetan, 3 antzerki emanaldi egingo dira, haietariko bat herri hauetan ekoiztutakoa izanda. Horrez gain, eleberri laburrez osatutako liburu osoaren aurkezpen publikoa ere egingo da kulturgileren baten parte hartzearekin.

Halaber, diru ekarpena aipaturiko xedera bideratuko du Udalbiltzak; hau da, *Geuretik Sortuak* proiektu kulturala finantzatzeko. Hori egiaztatzeko, 2021eko abenduaren 30a baino lehen memoria bat bidaliko du Udaletara garatutako ekimenen berri emanez. Era berean, partzuergoak memoria ekonomikoa ere aurkeztu beharko du, ondorengoak jasoko dituelarik:

- a) Diruz lagundutako jardueri dagozkien gastuen zerrenda sailkatua (hornitzailea eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketa data identifikatuta).



UDALBILTZA

- c) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko izan diren beste diru sarrera edo laguntzak, zenbatekoa eta jatorria barne, xehetasunez jasotzen dituen zerrenda.

Azkenik, Partzuergoak udaletako kontu-hartzailletza zerbitzuekin elkarlanerako prestasuna behar du izan gastuari buruzko frogagiriren bat edo informazio gehiago eskatzen bazaio.

Udalbiltza Partzuergoak, udalek hala eskatzen badiote, egindako jardueren aurkezpen publikoa egingo du, udalerriko herritar guztiei irekita. Honen helburua, bertako herritarrek bere jardueraren berri izan eta tokiko garapen estrategia ezberdinen inguruan ezagutzak handitzea izango da.

BOSGARRENA.- BESTE DIRU-EKARPEN BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA:

Hitzarmen honek xedetzat duen diru-ekarpena bateragarria da beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk eman lezakeen helburu bereko subentzio, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin.

SEIGARRENA.- AMAITUTZAT EMATEA:

Hartutako konpromisoak alde batek ez baditu betetzen, beste aldeak ahalmena izango du hitzarmena zorrotz betetzea eskatzeko edo hitzarmena amaitutzat ematea eskatzeko eta, behar izanez gero, ekarpen ekonomikoa galdu edo zati batean edo oso-osorik itzultzea eskatzeko.

ZAZPIGARRENA.- IRAUPENA:

Hitzarmen hau bi aldeek izenpetzen dutenean sartuko da indarrean eta hala jarraituko du bere xedea bete edo amaitutzat eman arte, 2022ko abenduaren 31 baino lehen bukatu behar duelarik nolanahi ere.



UDALBILTZA

Aurreko guztiarekin ados daudela erakusteko, eta horrela jasota gera dadin eta bidezko ondorioak sor ditzan, bi aldeek hitzarmena izenpetzen dute jatorrizko bi aleetan, goian aipatutako lekuan eta egunean.

UDALBILTZA PARTZUERGOA

Izptua: Jabi Asurmendi Sainz

BERGARAKO UDALA

Izptua: Gorka Artola Alberdi

ANTZUOLAKO UDALA

Izptua: Beñardo Kortabarria Olabarria

ELGETAKO UDALA

Izptua: Iraitz Lazkano Garitaonandia